# BESTELAKO XEDAPENAK

## GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

## 688

*23/2022 EBAZPENA, otsailaren 3koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez xedatzen baita Zarauzko udalerrian Salberdin eremuan zuzkidura-bizitokiak sustatzeko Zarauzko Udalarekin sinatutako hitzarmenaren luzapena argitaratzea.*

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak aipatutako hitzarmena sinatu duenez gero, zabalkunde egokia izan dezan, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea Zarauzko udalerrian Salberdin eremuan zuzkidura-bizitokiak sustatzeko Zarauzko Udalarekin izenpetutako hitzarmenaren luzapenaren testua, zeina eranskin gisa agertzen baita.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko otsailaren 3a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,
JON IÑAKI URBINA GARCÍA DE VICUÑA.

ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN OTSAILAREN 3KO 23/2022 EBAZPENARENA

*ANEXO A LA RESOLUCIÓN 23/2022, DE 3 de FEBRERO, DEL DIRECTOR DE LA SECRETARÍA DEL GOBIERNO Y DE RELACIONES CON EL PARLAMENTO*

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

ZARAUZKO UDALA

| | |
|---|---|
| **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN, LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILAREN ETA ZARAUZKO UDALAREN ARTEAN 2017AN SINATUTAKO LANKIDETZA-HITZARMENAREN LUZAPENA** | **PRÓRROGA DEL CONVENIO DE COLABORACIÓN SUSCRITO EN EL AÑO 2017 ENTRE LA ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAIS VASCO, DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES Y EL AYUNTAMIENTO DE ZARAUTZ** |
| **ZARAUZKO UDALERRIAN 10.2 SALBERDIN EREMUAN ZUZKIDURA-BIZITOKIAK SUSTATZEKO** | **PARA LA PROMOCIÓN DE ALOJAMIENTOS DOTACIONALES EN ÁREA 10.2 SALBERDIN, EN EL TÉRMINO MUNICIPAL DE ZARAUTZ** |

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

Vitoria-Gasteizen, 2021eko abenduaren 17an,

En Vitoria-Gasteiz, a 17 de diciembre de 2021,

**BILDU DIRA**

**REUNIDOS**

**ALDE BATETIK**, Ignacio Maria ARRIOLA LÓPEZ jauna, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio sailburua.

**DE UNA PARTE**, el Sr. D. Ignacio Maria ARRIOLA LÓPEZ, Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes del Gobierno Vasco,

**ETA BESTETIK**, Xabier TXURRUKA FERNANDEZ jauna, Zarautzko Alkate-udalburua.

**Y DE LA OTRA**, el Sr. D Xabier TXURRUKA FERNANDEZ, Alcalde presidente del Ayuntamiento de Zarautz.

**BERTARATU DIRA**

**COMPARECEN**

Lehenengoa, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburu gisa eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren ordezkari gisa, Gobernu Kontseiluak 2021eko azaroaren 23an egindako bilkuran hartutako erabakiaren bidez egintza honetarako baimendua.

El primero, en calidad de Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes del Gobierno Vasco y en representación de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco, autorizado para este acto en virtud de acuerdo adoptado por el Consejo de Gobierno en sesión celebrada el día 23 de noviembre de 2021.

Eta bigarrena, Zarauzko Udaleko alkate udalburua den aldetik, udalbatza horren 2021eko uztailaren 29ko osoko bilkurak egintza honetarako baimena eman zion.

Y el segundo, en su calidad de Alcalde Presidente del Ayuntamiento de Zarautz, en representación del mismo, autorizado para este acto por el acuerdo del pleno de dicha corporación local reunido con fecha 29 de julio de 2021.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Bi aldeek luzapen-akordio hau emateko legezko gaitasun nahikoa aitortzen diote elkarri.

Ambos comparecientes se reconocen la capacidad legal suficiente y necesaria para otorgar el presente acuerdo de prórroga

## AZALDU DUTE

**LEHENA.-** 2017ko abenduaren 21ean, lankidetza-hitzarmen bat sinatu zuten Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak eta Zarauzko Udalak, Zarauzko udalerrian, 10.2 Salberdin eremuan zuzkidura-bizitokiak sustatzeko.

**BIGARRENA**. – Hitzarmenaren hamargarren klausularen arabera, akordioaren indarraldia 4 urtekoa zen. Hala ere, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49.h) 2. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, klausula horrek adierazten zuen, halaber, aurreikusitako epea amaitu aurreko edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez erabaki ahal izango zutela hitzarmena luzatzea, lau urte gehiagoz luzatzeko edo azkentzeko.

## EXPONEN

**PRIMERO**. - Con fecha 21 de diciembre de 2017 se suscribió un Convenio de Colaboración entre la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco, Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda y el Ayuntamiento de Zarautz para la promoción de alojamientos dotacionales en el área 10.2 Salberdin, en el término municipal de Zarautz.

**SEGUNDO**. – De acuerdo con la cláusula décima del convenio la vigencia del acuerdo era de 4 años. No obstante, en conformidad con lo establecido en el artículo 49.h) 2º de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, dicha cláusula también señalaba que, en cualquier momento antes de la finalización del plazo previsto, los firmantes del convenio podrían acordar unánimemente su prórroga por un periodo de hasta cuatro años adicionales o su extinción.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

**HIRUGARRENA.-** Alderdien artean orain arte lortutako lankidetzaren eta koordinazioaren asebetetze-maila handia kontuan hartuta, eta horrekin jarraitzeko asmoz, eta jarduketen eta etxebizitza egoki bat legez okupatzeko eskubidearen eraginkortasunaren arteko koherentziari eusteko helburuarekin, eta Euskadiko etxebizitza-politikaren gainerako printzipio gidari guztiak – Hitzarmenean aipatzen direnak – Betetzen jarraitzeko zentzuarekin, bi aldeek beharrezkotzat jotzen dute 2017ko abenduan sinatutako hitzarmenaren helburuak luzatzea.

**TERCERO.-** Dado el alto grado de satisfacción de la colaboración y coordinación obtenida hasta ahora entre las partes y con el fin de proseguir con esta, así como con la finalidad de continuar manteniendo la coherencia entre las actuaciones con la efectividad del derecho a acceder a la ocupación legal de una vivienda adecuada y con el sentido de seguir cumpliendo con el resto de los principios rectores de la política de vivienda en Euskadi, a los que hace referencia el Convenio, ambas partes consideran necesario acordar la prórroga del convenio suscrito el 21 de Diciembre de 2017, para dar así cumplimiento a la totalidad de los objetivos recogidos en el mismo.

Arestian azaldutakoaren arabera, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak eta Zarauzko Udalak.

En virtud de lo expuesto anteriormente el Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes del Gobierno Vasco y el Ayuntamiento de Zarautz.

**ADOSTEN DUTE**

**BAKARRA**. – 2017ko abenduaren 21ean Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak eta Zarauzko Udalak Salberdineko 10.2 eremuan zuzkidura-bizitokiak sustatzeko sinatutako hitzarmena 4 urtez luzatzea (2025eko abenduaren 21era arte).

**ACUERDAN**

**ÚNICO**. – Prorrogar por un plazo de 4 años (hasta el 21 de diciembre de 2025) el convenio suscrito con fecha 21 de diciembre de 2017 entre el Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda del Gobierno Vasco, y el Ayuntamiento de Zarautz para la promoción de alojamientos dotacionales en área 10.2 de Salberdin en el término municipal de Zarautz

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Ados daudela adierazteko, eta dagozkion ondorioetarako jasota gera dadin, alderdiek luzapen-akordio hau sinatu dute.

En prueba de conformidad, y para que conste a los efectos oportunos, las partes firman este acuerdo de prórroga,

**EL CONSEJERO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES**

Ignacio Maria ARRIOLA LÓPEZ

**EL ALCALDE DEL AYUNTAMIENTO DE ZARAUTZ**

Xabier TXURRUKA FERNANDEZ

5